

...eta

kittO!

876 zkia.
2014-I-31

COLISEO

**ANTZOKIKO
eskaintza zabaltzen**

KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

KOMUNITATEAK

AHOLKULARITZA

- Auzo komunitateen administrazioa
- Etxebizitzak, garajeak, industriak...
- Jaurlaritzaren dirulaguntzen tramitazioa

- Fiskala
- Laborala
- Kontabilitateak
- Aseguruak



C/ Toribio Etxebarria, 3 - 2º EIBAR
Tel: 943 70 25 40 Fax: 943 20 77 74
Email: keingroup@keingroup.com

Otsaileko eskaintza!

Zurekin Konpliz

Bezero berriak:

3 zona 60€-tan

Gaur egungo bezeroak:

20€ zona berri batengatik

2014ko otsailaren 1etik 28ra bitarteko promozioa.

Ezin da pilatu beste eskaintza edo promozioekin.

* Zangoak ez daude barne.



Eskatu zure txanda!

tlf. **943 567 002**

Eibar- Bista Eder, 2



...eta kitto!-ren
itzulpen
itzu
tzu
tzu
zerbitzua



**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelerara,
gazteleratik
euskarara,
eta ingelesetik
euskarara.**

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.

- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.



elkartea@etakitto.com

ASTEAN ESANAK

"Goi mailako kirolari gehienak lehenengo seihilekoan jaiotakoak dira, entrenatzaileak helduenak hartu ohi dituelako haurtzaroan, eta gaztetxoena eta txikiak baztertuta geratzen dira, aulkian; azken horiek gutxiago jokatzen dute"

(J. MANUEL GIEZ. ARAMENDI, MEDIKUA)

"Kaleak zabalagoak dira Bilbaon Bilbon baino; zinema aretoak daude batean, film bakanen bat noiz-behinka bestean... Baina, harrigarria dirudien arren, Bilbon Bilbao kabitzen da, eta ez Bilbo Bilbaon". Jokin Otegi idatzitako hori Euskal Herriko herri-mapa gehienetan irakurri daiteke"

(ÁNGEL LERTXUNDI, IDAZLEA)

"Etxaurin ezinezkoa da eskalataleen eta hegaztien arteko elkarbizitza. Aukeratu beharra dago: edo eskalada edo hegaziak. Nik, agian, lehentasuna emango nioke eskaladari"

(ZIGOR ARTEAGA, ESKALATZAILA)

"Ez gaude eskaladaren aurka. Badaude Nafarroan beste toki batzuk eskalatzeko modukoak fauna kaltetu gabe. Baina Etxauri ornitologia santutegi bat da"

(TOÑO MUNILLA, EKOLOGISTA)

"Gizonezkoa da suntsipen handiko armarik osotuena. Historiako genozidio handienak ez dituzte bonbek eragin: horiek debekatuta ere, beti izango da gizon bat atzean. Eta horietako 3.500 milioi daude munduan, aske"

(J. IGNACIO TORREBLANCA, KAZETARIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

KAJETOLA.- Gabonetan, gozotegiek prestatzen zituzten egurrezko membrilo kajak. "Zer gabon sari emon detsue? Kajetolia".

KAKA.- Gizakiena. Animaliena, korotz eta pekorotz. Ume berbetan, gauza zikina, ikutu behar ez dena. "Ez eruan ahora hori, maittaa, kaka da-ta".

KAKAI.- Haserrea adierazteko interjekzioa. "Kaka, alperrik galdu juat oingua be!".

eskutitzak

90 URTE BETE DITUGU URTARRILAREN 30-EAN

90 urte igaro dira 1924ko urtarrilaren 30ean, Candido Arrizabalaga buru zela, atletismoa, txirindularitza eta alpinismoa bultzatzeko asmoz elkarte bat sortzeko bilera egin zela. Orduan, Jose Laskurain jauna aukeratu zuten klubaren presidentea. Orduandik, milaka eta milaka ekintza ezberdin egin ditu klubak, eta hasierako atletismo, txirindularitza eta alpinismo batzordeei beste hainbat ekintza elkartu zitzaizkien gaur egun garen honetara iritsi arte. Gaur egun 14 batzorde eta 2.600dik gora bazkide ditugu klubean. Gaur bazkide zareten guztioi gure eskerrik beroena 90 urte hauetan gure ondoren izan zaretelako, eta bidean eta antolatutako hainbat ekintzetan ikusiko dugu elkar.

Gainera, 30etik aurrera, klubaren boletina izan

zen Kezka Aldizkariaren lehenengo 13 aleak (1964tik 1975era artekoak) eta klubaren lehenengo boletina (1930ekoa) jarriko ditugu deskargatzeko klubaren webgunean.

Ekintzei dagokienez, batzordeek urte hasierari indarrarekin ekin diote eta martxa betean daude mendi eta eski-irteerak; bestalde, abian da Gipuzkoako xake txapelketa; eta baita Udaberri pilota txapelketa ere; Argazkilaritza Batzordeak maiatzeko egitaraua prestatzen dihardu; eta baita Kultura Batzordea ere, Euskal Jaiarekin. Kezka Dantza Taldea Besta Berri ikuskizunarekin izango da asteburuan Iruñean; eta squasheko liga ere martxan dago kiroldegian.

2014an ere ez gara aspertuko!

EIBARKO KLUB DEPORTIBOA

BAZKIDEEN NAN ZENBAKIAK BEHAR DITU ...ETA KITTO!-K

Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskarazko Zuzendaritza Nagusiak ...eta kitto! Euskara Elkarteak 'aktibitateen lehentasunezko jarduerak' izendatu berri du. Horren ondorioz, gure elkarteari ekarpenak egin dizkion pertsona orok diru ekarpen hori norberaren errenta aitortpenean aurkeztu eta desgrabatze aukera izango du. Bazkideen ekarpenen araberako desgrabazioak izango dira eta horretara

rako gure bazkideen datuez gain NAN zenbakiak ere bidali behar ditugu Ogasunera.

Beraz, ekarpena desgrabatzea nahi izanez gero, zure NAN zenbakia (letra barne) marisol.etakitto@gmail.com helbidera bidali behar duzu edo, bestela, deitu 943 20 09 18 telefonora (Marisol).

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA



Euskara Elkarteak

ARGITARATZAILA: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,

Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIAK:** Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)**

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EAJ pozik, PSE-rekin bat egin dabelako

Martitzenian Batzokixan egin-dako agerraldixan, Iñaki Zuloagak 2014rako udal aurrekontuaren inguruan jeltzaliak sozialistekin lortu daben adostasuna "positibotzat" jo eban, aurrekontua onartzeko ple-nuan EAJ-ko ordezkariak kontrako botorik ez dabela emon-go gaiñeratuta. Adostasun horren harira, Arrate Bidetik Itziora espaloia egiteko aktuaziñuan alderdi bixak alkarlanian jardungo dabe, instituziñuengandik biharrak pagatzeko dirua lortzeko.

Horrekin batera, bixen arteko adostasuna alkarrekin hartzartutako sei zuzenketetan is-

latuko da: Untzaga-Txaltxa Zelai eta Eibarko Txikito-Txaltxa Zelai bittarteko eskillara mekanikuak estaltzia; hainbat tokittan oiñezkuendako jasotako pasabidiak egiteko, partidari 20.000 euro gehitzia; Birjiñapeko etxeuak etxetik errazago sartu-urtetzeko aldapia egiteko aukerak aztertzea; Toribio Etxebarrian doaneko OTA sistema ezartzia (40.000 euro); Memorixa Historikuaren ibilbidia seiñalizatzen hastia; eta kaliak eta parkiak garbi egoteko herritarren konzientziaziñorako kanpaiñari ekitia (6.000 euro).

Zuloagak negoziaziñuan



Eva Juez eta Iñaki Zuloaga martitzeneko aurkezpenian. SILBIA HERNANDEZ

izandako giro ona azpimarratu eban: "Batetik, Legebiltzarrian alderdi bixen arteko adostasunari esker Eibarrek mugikortasunian inbertitzeko 3'1 millioi euro jasoko ditu. Bestalde, 2012xan hartutako konpromisuen harira iaz betetzeke eguazten hainbat gairi gogotsu heldu

detse sozialistak eta, horri esker, ambulatoxio parian trafikua lur azpittik juateko proiektua, Plan Estrategikua eta Errebalerako proposamen barrixa martxan dagoz". Amaittu aurretik, Bilduk aurkeztutako proposamenen inguruan oso kritiko agertu ziran jeltzaliak.

Abortu-legiaren kontrako moziñua

Astelehenian egindako bilkuran, udalian ordezkaturata daguazten alderdi politiko guztiak batzen dittuan bozeramaillien batzararak, PSE-EE, Bildu eta EAJ alderdixen aldeko botuekin, Espaiñiako Gobernuari abortuari buruzko aurreproiektua atzera botatzia eskatzeko moziñua onartu eban. Horrekin batera, "udalak emakumien autonomixarekiko eta, zihetzago, ugalketara-

ko autonomixa eskubidiarekiko konpromisua" berretsitu eban bigarren puntuaren eta hirugarren puntuaren Eusko Jaurlaritzari "unian-uneko araudixa errespetatuz, emakumiak euren gorputzarekiko eta ugalketarekiko erabagixak askatasunez hartu ahal izateko lege-babesa, osasun-babesa eta babes soziala bermatzen jarraitzia" eskatu detsa. Bestalde, erreforma horri erantzun

bateratua emoteko andrazkuen mugimenduak egindako "lan itzelari errekonozimendua" aitortuta, mobilizaziñuak babesten dittuala gaiñeratu detse Eusko Jaurlaritzari, Espaiñiako Gobernuari, Alberto Ruiz Gallardon Justizia ministruari eta Diputatuen Kongresuari helaraziko detsen testuari.



Gerrako umien hamaika lekukotasun interneten

Gerra sasoiaren Eibartik Errusiara, Belgikara, Frantziara eta Ingalaterrara juandako hamaika "umeren" lekukotasunak eta bizipenak www.egoibarra.com webgunian sareratu barri dabe Ego Ibarra batzordekuak. Lehenagotik eguan zerrendiari gehittu detsazen gerrako umiak Nieves Atxa Garmendia, Jesusa Astigarraga Carral, Roberto Altuna Iriondo, Alicia Gonzalez Atxa, Jose Antonio Gonzalez Atxa, Roberto Marcano Magunazelaia, Jose Mari Oiarzabal Landa, Juan de los Toyos Garai, Juana Unzueta Garcia, Be-goña Zaldibar Oianguren eta Armando Arizmendiari dira.

MAIALEN LOPEZ IGLESIAS

4. URTEURRENA (2010-I-30)

MAIALEN, ZURE IRRIBARREA EZ DUGU AHAZTEN.

Aitaren eta amaren partez.



Kanpaiña solidarixu arrakastatsuak

Eibarko Sozialistek azkenaldixan antolatu dituduen kanpaiña bixetan eibartarrak emondako erantzuna eskertu nahi detse lagundu dabeneri. Gabonetan Casa del Pueblon jostailluak eta janarixa batzeko deialdixan, 250 kilo janari eta elikagaixak erosteko 300 euro batu zittuen. Hórrekin batera, Eibar-Er-mua Gurutze Gorrikuak umien artian banatuko dituduen jostailluak bildu zittuen. Filipinetan tifoia kaltetutakueri laguntzeko antolatu eben baba-jana solidarixuari esker, barriz,



Baba-jana solidarixua kaltetutako filipinetarren alde. LEIRE ITURBE

Alianza por la Solidaridad Gobernuz Kanpoko Erakundiak kudeatu dituduan 1.000 euro jaso zittuen.

autuan



SANBLASAK BEDEINKATZIA

Astelehena San Blas eguna izango da eta, urtero lez, opillak bedeinkatu nahi dituduenak horretarako aukeria eukiko dabe horren harira egingo diran meza berezixetan: Karmengo Amaren elizan meza guztietan bedeinkatuko dittue; Amañakuan, 11.00etan; San Pio X.a eta San Andresen 12.00xetan; eta San Agustiñen, 13.00ian.

IKASTEN

Urteko Batzarra egin barri dabe Ikasten alkartekuak eta, urtiari errepassua emonda, antolatutakuekin pozik dagoz: 2013an euren eskutik egindako 181 jarduerak oso anitzak izan dira eta 6.500 lagunengana parte-hartzia euki dabe.

Latinamerikako doiñuak txotxa zabaltzeko

Aurreko barixakuan Iruki sagardotegiko txotxa zabaltzeko omenaldi-afarixa ondo baiño hobeto jua zan eta batutako 170 lagunak edarto pasau eben afarixan, baita afalostian be. Aurtengo omenduak Trio Medianoche (Pedro Bartra, Bernardo Aguilera eta Jesus Bastida) eta



Voces y Cuerdas (Marivi Murillo, Vicente Ramirez, Aitor Errasti eta Eduardo Gordillo), Eibarren Latinamerikako musikia eskintzen daben taldietako bi izanda, Patxi Lejardik gidatutako ekitaldixa euren abestixekin girotxia ixa derrigorrezkua zan. Baiña aurretik, Vicente Beldak sagardotegixaren izenian oroigarri bana emon zetsen: Esther Galarza artistiak okasiñorako bereziki diseiñautako platera.

AURREMATRIKULA ZABALIK 2014-2015 IKASTURTEA

Tfnoak. 943 202 133 / 943 121 698

www.lasalleeibar.com



La Salle
Eibar

Otsailaren 3tik 14ra
(biak barne)

HAUR HEZKUNTZA,
LEHEN HEZKUNTZA eta
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

La Salle Isasi eta Azitain Ikastetxeetan



asteko
3.460
datua

lagun hartu zittuan Indianokua gaztelekuak 2013ko azken lauhillekuan: 374 irailian, 1.003 urrixan, 1.095 azaruan eta 988 abenduan. Asteburuetan 80-90 bat nerabe juatan dira batzabeste.

Administraziño Publikuetako azpikontraten alde

Legegintzako Herri Ekimena abiarazi dau ELA sindikatuak, "sektore publikuetako azpikontratetako enplegua babestu eta gixiengo baldintza batzuk bermatzeko asmoz". Murrizketa eta erreformak eraginda, lan-baldintzak okerrera egin dabela diñue, "batez be sektore publikuetako azpikontratetan: garbitzailliak, lorazaiñak, kirol-etxietako zerbitzuak emoten dittuenak... udalaxiak ohiko jardunian 'erabiltzen' dittuan bihargiñak azpikontratutakuak dira". Gauzak holan, behin tramitera onartu ondoren, gaixa Legebiltzarrerera eruan eta eztabaidatzeko 30.000 siñadura batzia biharrezkua da eta horregaittik herritarrek siñatzera animatu nahi dittue.

Berriketan programia martxan

Berriketan hizkuntza boluntariotza programaren bigarren ediziñua martxan dago eta egunotan horri buruzko informaziñua buzoietan banatzen dihardute, parte hartu nahi daben jendia erakartzeko asmua-rekin. Lehelengo ediziñuak oso harrera

ona izan eban eta, horrekin animauta, Udaleko Inmigraziño alorrek bigarrena martxan ipintzeko biharrari ekin detsa. Otsaillian programan parte hartzeko jendia antzematia, elkarrizketak egittia eta hizkuntza bikotiak osatzia aurreikusida be. Informaziño saio batian parte hartu eta gero, partaidiak martxuan hasiko dira programarekin.

tia da. Horrekin batera, gure herrixan dagaizen kultura ezberdiñen arteko alkar ezagutza be sustatzen dau. Izan be, herrittarrak lehen eskutik ezagutu leikiez herrittar barrixen jatorrixak

Istripua bariantian

Aurreko barixakuan, 13.30xak alde-
ra trafiko istripua gertatu zan Eibar-
ko saihebidian, (N-634 errepidian,
64. kilometruan), Estaziñorako urte-
era parian: eurixak eraginda, auto-
mobil bat errepidetik urten eban

bihurgunian, bide bazterreko beda-
rretaraiño sartuta. Larrialdixetarako
zerbitzuak istripua gertatu zan toki-
ra juan ziran eta automobililla gara-
bixarekin eruan arte trafiko geldua
egon zan inguruan.



Suhiltzailliak be izan ziran laguntzen. SILBIA HERNANDEZ

www.aldatze.org

aldatze

III. ALDATZE
DANOK GARA
otsailaren 1ean

Ikasleen lana plazara aterako da otsailean

Hezkuntza, Hizkuntza eta Kultura Sailak, Tknika Lanbide Heziketarako berrikuntza zentroak eta Udalak Ikasenpresa izeneko azoka antolatu dute otsailaren 12rako (10.00etatik 14.00etara Untzagan). Aurreko edizioetan EJE izenarekin garatu den proiektu hau Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketako ikasleei zuzenduta dago eta, arduradunen berbetan, "Ikasenpresa programari esker ikasleek enpresa berria sortzeko esperientzian zuzenean parte hartzeko aukera daukate, enpresa bat sortzeko orduan eman beharreko pauso

guztiak emanez. Horrela, besteak beste, ikasleak bere gaitasun ekintzaileak garatzeko aukera dauka (sormena, berrikuntza, talde-lana, erabakiak hartzea, iniziatiba, lidergoa, konpromisoa eta erabakimena, negoziazioa...)".

2013-2014 ikasturte honetan, Euskadi osoko Lanbide Heziketako 40 ikastetxetako 1.500 bat ikasleak dihardute parte hartzen eta euren eskutik 228 enpresa sortu dira. Horieta asko Untzagan egingo den azokan aurkeztuko dituzte eta bakoitzaren produktuak erosteko aukera ere izango da. Eurekin



Arخبoko irudian aurreko edizioetako partaideetako batzuk. SILBIA H.

batera, Eibarko Hasierako Lanbide Prestakuntza Programako ikasleak azokan izango direla aurreratu dute antolatzaileek.

Bestalde, Ikasenpresa azoka egin eta jarraian, otsailaren 15 eta 16ean lehenengoz egingo den Eibarko Akademien I. Azo-

ka hartuko du Untzagak (12.00etatik 14.00etara). Udalaren ekimenez egingo den honetan gure herrian dauden akademiek hartuko dute parte, irakasten dituztenen eskaintza zabala herritarrei gerturatzeko asmoz.

"Hizkamizka" saiorako lehiakide bila

Euskal Telebistako "Hizkamizka" lehiaketan parte hartzeko lehiakideak behar dituzte eta, horregatik, saioko arduradunek gazteak parte hartzera animatu nahi dituzte. 18 urtetik gorako edonork har dezake parte lehiaketan. Lehiakideek kultura orokorreko galderari erantzun beharko diete eta saio bakoitzean 300 euro irabaz daitezkeela azpimarratu dute. Gainera, lehiaketak norberak duen ezagutza maila modu dibertigarrian neurtzeko aukera paregabea eskainiko die parte hartzera animatzen direnei.

Astelehenetik barixakura, 18.30etan ETB-1n ematen da Zuhaitz Gurrutxagak aurkeztzen

duen saioa eta atal bakoitzean bi lehiakidek hartzen dute parte. Jokoaren dinamika oso erraza da: "Galderei zuzen erantzunez puntu gehien lortzen duenak aurrera egingo du

eta, beraz, hurrengo saio berri bat jokatzera pasatuko da. Kultura orokorreko galderak egingo dira eta lehiakideek Trivial batean egingo liratekeen galderen antzekoei eran-

tzun beharko diete. Adibide batzuk aipatzearen, hauen moduko galderari erantzun beharko zaie: Zein arkitekto egin zuen Bilbao Guggenheim Museoa? Zein izen-abizen dituen Ken Zazpi taldeko kantariak? Zein udalerritan dago Bilboko aireportua? Nola deitzen da akerraren emea? Edo zein markarekin lotzen duzu Steve Jobs izena?".

Izena emateko hizkamizka@eitb.com helbidera idatzi, izena, abizena, adina, e-posta, telefonoa, helbidea, herria eta lurraldea adierazita. Saioko arduradunek dioten moduan, "galtzeko ezer eta irabazteko asko daukatzue-eta".



Kultura orokorreko galderari erantzun beharko diete lehiakideek eta saio bakoitzean 300 euro irabaz daitezke.

MAITANECASTILLOTAOLA VII. urteurrena

"Negu, udaberri, uda eta udazkenak aurrera doaz etengabe, baina errutina hauetan murgilduta gauden arren, zure irribarre gozoa, alaitasun zoroa, begi urdin gardenak eta zurekin igarotako une zoragarriek GURE BIHOTZETAN hegari jarraitzen dute.

ZURE KUADRILLA



Coliseoko eskuintza are zabalagua izango da



Oin dala egun gitxi jakin dogunez, Coliseo antzokiak Espaiñiako Gobernuko Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministeriaren bultzatutako Platea programarekin bat egin dau. Programako kide izatiari esker, bestiak beste, udalak antzerki konpainia eta bestelako ikuskizun askoren gaiñeko informaziñua esku-eskura euki dau.

Plana INAEM Musika eta Arte Eszenikuen Institutuak bideratu dau eta helburu nagusiña, udalak eta INAEM dalakuak alkarrekin antzerki-taldien programaziñoa bateratua bultzatzea da, toki erakundietako kultura-programaziñua biziberritzeko eta aberasteko asmuarekin eta, bide batez, autonomia erkideguen arteko komunikaziñua jorratuta

herritarrak kultura esku-eskura izatia bermatu nahi dabe.

Jose Luis Gonzalez "Poxpolo" Kultura teknikarixak azaldu eskunez, *"estatu maillan arte eszenikuak gaur egunian zelako egoeria bizi daben ikusitta, kontrataziñua bultzatzeko asmuarekin INAEM-ek programa barri hau sortu dau. Programarekin bat egitteko eskatzen zittuen parametruetan sartzen giñala ikusitta, eskaeria aurkeztia erabagi genduan eta holan sartu gara Platea programan"*.

Izan be, Platea programan sartzeko eskaeria udalak ministeriari zuzenian egin zetsan, bertatik jasotako dokumentaziñua aztertu ondoren. Madrilgo teknikuak eskaeria begi onez ikusi eta gure herrixa programan sartzia onartu eben. Udalak,

INAEM-k diseinatutako baliabide informatikua erabillita, erakundiak osatutako konpainia-kataloguan jasota dagan informaziñoa osua konsultatzeko aukeria eukiko dau: talde bakoxtaren cache-a, fitxa teknikuak eta ikuskizunen txostenetarako loturak, bestiak beste.

EAE-ko sei antzoki

Espaiñian, autonomia erkidego guztietako ehun antzokik eta auditoriok dihardute Platea programan parte hartzen eta Euskal Herrixan, barriz, Coliseo antzokiaz gain beste bost partaide dagoz: Gasteizko Principal antzokia, Erreterria Hiria Kulturgunea, Irungo Amaia Kultur Zentroa, Barakaldo Antzokia eta Santurtziko Serantes Kultur Aretoa.

Coliseo antzokiak 2007xan atiak zabaldu zittuanetik hona, ikusle kopuruak zeñ antzokiak hartzen dittuan ikuskizunenak etenbarik gora egitten segitzen dabe. Eta badirudi goranzko joerik bere horretan segiduko dabela, Udala Platea programan sartziarekin batera 435 ikuskizunetik gorako katalogua esku-eskura dauka-eta.

Platea programako egitaraua 2014ko martxotik abendura bitartian garatuko da. Sei milioi euroko aurrekontua dauka eta, aurreikusitakua betez gero, horrerri jarraituta 150 udal antzokitan 1.200 ikuskizun inguru eskinduko dira, 200 bat konpainiaren mesedetan. Gaiñera, programaren abantailletako bat diruari zuzenian lotuta dago: ikuskizunetako sarreraren salmentan jasotako diru-sarreraren eta konpainiak kobratzen dabenaren arteko aldia INAEM-ek bere gaiñ hartuko dau.

Eibarko udalak urtiak daroiaz arte eszenikuak eskintzeko biharrian eta egindako ahalegiña behiñ baiño gehixagotan agerixan geratu da, adibidez Eibarko Antzerki Jardunaldixak edo Debabarreneko Eskolarte-

**EMAKUME ETA GIZON
MODA**

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7



Radio Eibar

CADENA
SER

104,0 FM

Izadi

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

ko Antzerki Erakusketia antolatzeke orduan izan daben inplikaziñua nabarmendu dabenian. Goi maillako kontuak albo batera lagata be, udaleko Kultura saillak gogotik jarduten dau biharrian hilleroko ohiko programaziñuan umiendako zeñ helduendako antezlan bana antolatzen, baita jaxetan kaleantzerkiko ikuskizunak Eibarreara ekartzen be. Kultura teknikarixak diñuanez, "Antzerki Jardunaldixetatik kanpora, bestelako programaziñuan oreka billatzen ahalegintzen gara beti, baiña oso argi dakagu gogor ahaleginduta be, beste emanaldixak ez dabela sekula Jardunaldixak daken zabalkunde-indarra izango. Hortik kanpora, antolatzen ditugun guztietan kalitatea bermatzen ahalegintzen gara eta, orohar, Coliseora zeozer ikuste-

ra doian jendia pozik urtetzen da. Halanda be, ikuskizun ona antolatuta oso jende gitxi jua dala ikustian, norberari beti geratzen jako holako sensaziño arraro bat".

Opera proieksiñua

Coliseoko eskintza gero eta zabalagua izateko ahalegiñari jarraituta, gaur bertan jarduera barri bat hartuko dau Coliseuak: 20.30xetan hasitta, Giacomo Pucciniren "Tosca" operiaren proieksiñua eskinduko dabe. Gaurko emanaldixarekin aurreara begira jarraipena eukiko daben operari eskindutako ziklua hasiko da (sarreriak 8 euro balixo dau). Gaurko proieksiñuak 150 miñutuko iraupena eukiko dau eta Pucciniren opera esanguratsuenaren egiturari jarraituta, hiru ekitaldi eukiko dittu.



Sarrerak erosteko ordutegixak finkatuta dittu Coliseoak. SILBIA H.

Sarrerak erosteko bidiak

Oso lantzia behin Coliseora juaten animatzen diranetakok ez dabe argi eukitzen emanaldixetarako sarrerak zelan erosi leikiazen, salmenta ordutegi eta moduak azken aldixan finkatuta daguezen arren: zinerako sarreraren kasuan, 17.00etako emanaldixetarako salmenta ordubete aurretik, 16.00etan hasten da; gaiñerako emanaldixetarako sarrerak proieksiñua hasi baiño ordu erdi lehenago hasten dira saltzen, beti be sarreran daguean leihatillan zuzenian. Zinia albo batera lagata, beste edozeñ ikuskizunerako sarreraren salmenta arrunta (takillan) emanaldixa hasiko dan ordua baiño ordubete lehenago hasten da. Eta sarrerria alde z

retik erosi nahi dabenak aukera bi dakez: zuzenian Coliseoko txarteldegira juanda (astelehenetan 19.00etatik 20.00etara eta barixakuetan 21.00etatik 22.00etara) edo, bestela, internet bittartez, www.kutxabank.es helbidian sartu eta interesatzen den ikuskizuna aukeratuta.

Bestalde, oin dala aste gitxitik hona Gazte Txartela, langabetu txartela edo ikasle txartela dakeneri, bost eurotik gora balixo daben kultur ikuskizunen sarreretan euro biko beherapena egitten hasi dira Coliseuan ez eze, Astelena frontoian eta Ipurua kiroldegixan be. Deskontua aplikatzeko, sarrerak erostian zeñ ikuskizunera sartzerakuan egiaztatze agirixa erakustia derigorrezkua da



Gaur 20.30xetan "Tosca" operiaren proieksiñua eskinduko dabe.

KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

30 urte
Eibarko
bizilagun-
erkidegoekin
konprometitua



Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



ESPERIENTZIAK
EMATEN DUEN KONFIANTZA

www.euki.com


Tel: 943 200 358



Funeraria Ehorztetxe


Mugica

EIBAR



Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko
erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51

www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze
Taldea

GRUPO
funeuskadi

Hierros Anetxeren garaipen garrantzitsua Zarautzen

Eibarko taldeak Zarautzen lortutako garaipenak balio bikoitza du 3. postua lortzeko borrokan, kostaldeko taldea aurkari zuzena baita. Lehen zatian gauzatutako entsegu bakarrak erabaki zuen partidua (0-5) eta Eibar Rugby Taldekoek lau punturen jabe egin ziren. Defentsak eta baloi jabetzak agindutako partiduan, lau jubenil izan ziren Ganzarainek

zelairatutako hamabostekoan: Xabi Bengoa atzelaria, Jon Ander Bergara bigarren erdikoa eta Pablo Jimenez hirugarren lerroan.

Nesken taldeak, bestalde, galdu egin zuten Iruñean La Unicarekin. Orain arte beti 12ra jokatu duen taldeari kostatzen ari zaio lehen garaipena eskuratzea aurten 15era lehen aldiz jokatzen duen ho-



Talde seniorrekin jokatu zuen jubenil mailako laukote txukuna.

netan: hori lortzen ahalegin- duko da otsailaren 15ean Durango-Urbealdean Unben jasoko duenean.



Raul Nietoren barnekaldia.

ConceptoEgilek lidergoa eskuratu du areto-foballean

18. jardunaldian lortu du Debabarreneko taldeak 2. B mailako bigarren multzoko lidergoa, Jakako Estanco Martin-i 5-2 irabazita. Raul Nieto (2 gol) eta Alex Alonso, Treviño eta Rafa (bana) izan ziren goletzaileak. Emaitzak erakusten duen baino zailtasun gehiago izan zituen Elgoibarko taldeak nagusitzeko.

Debabarreneko harrobiko taldeen artean, Sukia biek euren neurketak bereganatu zituzten (kadeteetan Usurbili 6-11 irabazita eta infantiletan Goierri 3-4), Debabarrenak Eskoriatzan galdu zuen bitartean.

Alex Txikonen "Karakorum Negua" otsailaren 6an



Eibarko Klub Deportiboak antolatuta, datorren asteko eguenean "Karakorum Negua" proiektioa eskainiko du Alex Txikon mendizaleak Deporren. Proiektio hori 19.30-etan hasiko da eta, amaieran, pintxo-poteoa egingo dute.

Urbat waterpoloko jokalaria bi selekzioarekin

Bihar Sakonetako igerilekuan egingo den teknifikazio jardunaldian izango dira Urbat Urkotronik-eko infantil mailako jokalaria bi. Igor Sanz eta Sara Leturiaga (taldearen historiar lehenengo aldiz deitzen


duten neska bat) izango dira Euskal herriko selekzioarekin. Espainiako autonomia erkidegoen arteko txapelketa jokatuko da hor, aukera ederra eibartarren maila hoberetzeko.



Urbateko infantil mailako waterpolo taldea. LEIRE ITURBE

Hiru pilota partidu gaur Astelenan

Gaur, 19.15etan hasita, Klub Deportiboko pilotariek protagonista izango dira Kate-drelean. Hasteko, taldeko alebin onenen arteko lehia ikusi ahal izango da eta, jarraian, Udaberri Torneoaren barruko beste bi neurketa: gazte mailan, Narbaiza eta Izagirre Hondarribiko ordezkarien aurka; eta helduetan, Agirresarobe eta Agirrebeña Donostiako Alde Zaharreko bikotearen kontrako lehian.



Agirresarobe

KALEFAKZIO GEHIGARRIA

Kanpoko hotzaren aurrean...

...ETXEAN BERO-BERO

2014ko
urtarrila

fonta.amana@gmail.com



AMAÑA

FONTANERIA

BAINUEN INSTALAZIOA ■ SUKALDEA, GASA ETA KALEFAKZIOA ■
BAINUEN DISEINUA ORDENADOREZ ■ AIRE EGOKITUA

T. Anitua 12 Tel. 943 201 930

Gasa. Kalefakzioa. Klimatizazioa. Eguzki Energia



Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637
Faxa. 943 254 929

Jardines Iturgintza

Jardiñeta, 11 B fontaneriajardines@euskalnet.net



MUGICA
ITURGINTZA FONTANERIA

943 20 10 30
www.mugica-sa.com

Gas
Berokuntza
Lur Bero
Klimatizazioa
Eguzki Energia
Geotermia
Kogenerazioa
Energia Azterketak

Gas
Calefacción
Suelo Radiante
Climatización
Energía Solar
Geotermia
Cogeneración
Estudios Energéticos



MUGICA


ITURGINTZA

Tfnua. 943 20 10 30
Faxa. 943 20 72 24

Helbide Egiguren tarren, 18 berria

Erradiadoreak purgatzearen garrantzia

Neguan bete-beteen sartuta gaude eta badira hilabete batzuk etxe guztietan berogailuak piztu genituela. Horien funtzionamendu eta errendimendua hobetze aldera, badira kontutan hartu beharreko hainbat gomendio, besteak beste, erradiadoreak purgatzea. Udaberri-udako hilabeteetan erabili barik egon eta gero, barruan izan dezaketen airea atera behar izaten da. Nola jakin gure erradiadoreak barruan airea duen? Bi modutan: goiko aldean hotza dagoenean batetik, eta bestetik, berogailua martxan jartzerakoan borbora-ren antzeko zarata



egiten duenean. Barruan airea duen erradiadore bat purgatzen ez badugu, erregaiaren zirkulazioa eten egiten da eta ez du modu homogoneoan berotuko.

Purgadorea erradiadorearen alde batean egoten den tresna txiki bat da; eskuzkoa edo automatikoa izan daiteke. Eskuzkoa denean, maratila edo giltz berezi batekin biratu be-



har da, eta beheko aldean edalontzi bat jarri, behin aire guztia irten eta gero, jausi daitekeen ura jasotzeko. Baina kontu izan, purgadorea larregi biratzen badugu ur-txorroa irtengo zaiguetan. Purgadore automatikoa, berriz, aluminiozko berogailuetan erabiltzen da. Oso eroso da, gu gainean egon barik, automatikoki botatzen duelako soberan duen airea.


Hainbat solairutako etxe-

an bizi bagara ohikoa da goiko pisuetako erradiadoretan pilatzea airerik gehiena. Horiek purgatu behar dira lehenengo. Solairu bakarreko etxeetan, berriz, galdararik gertuen dauden erradiadoreak purgatu behar dira lehenengo.

Erradiadoreak ondo purgatu baditugu, beroak homogoneoa izan beharko du etxe osoan. Prozedura hori ondo egin dugula frogatzeko beste modu bat izan daiteke hauxe: presioa bare 1-ean egotea.

VENTANAS IZARRAITZ

ERREFORMA MOTA GUZTIAK



- Leihoak, Toldoak eta Pertsianak
- Igeltseritza eta Iturgintza
- Aroztegia etabar

Bidebarrieta, 48
943 25 60 26 -EIBAR-
ventanas-izarraitz.eibar@hotmail.com

Bizkaia etorb., 10
-ERMUA- 943 17 14 52
ventanas-izarraitz@hotmail.com

SARGORI

BEROKUNTZAK S.L.

GAS ETA KALEFAKZIO INSTALAZIOA
ITURGINTZA / MANTENIMENDUA
AIRE EGOKITUA / ATERATZE ETA AIREZTAPENA

San Agustin, 2-4 - J lokala
Tel. 943 53 02 01 Faxe. 943 53 15 03

ELEKTIBAR, S.L.U.
ELEKTRIZITATEA
PROIEKTUAK
ARGIZTAPENA
INSTALAZIOAK

- * Denetarikoa **ERREFORMAK**
- * **TELEKOMUNIKAZIOAK**
- * **ATE AUTOMATIKOAK**
- * **BERO URDINA**

JOSU BENGOA

Indalezio Ojanguren 2, behea, 27 EIBAR
☎ 943 70 05 42 Faxe: 943 53 02 31
Aurrekontuak konpromezurik gabe

Eguzkiaren onurak aprobetxatzen

Eguzki bidezko kalefakzioa ez da berria, mendeetako bizia dauka, energia iturririk garrantzitsuena eguzkia izan baita betidanik. Eraikin 'adimenduek' gaur egun ere eguzki-energia aprobetxatzen dute (eguzki-kalefakzio sistema pasiboekin) eta azken belaunaldiko teknologia darabilten gailuak sortu dituzte. Eguzki kalefakzio aktiboarekin alderatuz gero (etxebizitzetako teiltuetan ipintzen diren panelekin edo eguzki bidezko ur-berogailuak) ezberdintasunik



handiena prezioa da. Eguzki bidezko kalefakzio sistema oinarrizkoan, eguzkiak eraikinararen sabaian dauden hodian barruko ura berotzen du eta berotutako urak eraikinean zehar egiten duen ibilbidean epeltasuna askatzen du. 70eko hamarkadaz geroztik hedatzen joan dira eguzki instalazio aktiboak eta, instalazioak berak zailtasun batzuk izan ditzakeen arren, energia sortzeko orduan ez dago kostorik eta, beraz, amortizazioa berehalakoa izaten da.

Eguzkiaren indarra, urtean dauden egun eguzkituak... kokapen geografikoa faktore garrantzitsua izaten da sistema hau aukeratzeko orduan. Sasoi batean bakarrik oso toki eguzkitsuetan erabiltzen ziren horrelako sistemak, baina gaur egun gure in-



guruan gero eta hedatuago daude eguzki-panelak. Horrelakoetan espezializatutako banatzaileek bakoitzaren neurria modurik egokienean moldatzen diren aukerak azalduko dizkie bezeroei, sistemari etekinik handiena atera ahal izateko. Euskal Herriko borda eta baserri inguru askotan eguzkiaren onurak aprobetxatzen gero eta jende gehiago animatu da. Hirietan ere tartetxoa egiten hasi da epeltzeko ezagutzen den sistemarik zaharrenean oinarritutako honek.



IGA S.L. KRISTALDEGIAK

TAILER ETA BULEGOAK: Legarre, 15 -EIBAR-

Tfnoa. 943 70 25 41 eta 943 70 24 95
Faxa. 943 70 24 95 Mobila. 670 21 46 25

ERAKUSKETA ETA SALMENTA:

Birjiñape, 1 behea -EIBAR-
Tfnoa. 943 20 20 40

ERAKUSKETA ETA SALMENTA:

Zeharkalea, 12 -ERMUA-
Tfnoa. 943 17 69 56

TAILERRA:
Errekatxu, 3

CLIMALITekin isolatzaile onena lortuko duzu akristalamendu bikoitzaz


ACHA Kristaldegia

ERAKUSKETA: eta faxa: 943 20 39 03
Arikixaneko Zubian info@cristaleriaacha.com

VENTANAS ONA[®] LEIHOAK

- AROZTEGI METALIKOA, PVC ETA MISTOA.
- KONPONKETA ETA MANTENIMENDU ZERBITZUA.

Bidebarrieta, 28 - behea
Tel. eta Faxa: 943 20 28 28
Mugikorra: 653 113 309 / 669 531 358
ventanas.ona@gmail.com www.ventanasona.com



METALEZKO ERAIKUNTZAK ALUMINIOZKO ETA PVC-KO AROZTEGIA

1984an sortua. Aluminio, PVC eta aluminio-egurrezko leihoen fabrikazioa. Lan mota guztiak honako esparruetan: burdin eta altzairu herdoilgaitza, ateak, barandak, makinendako babesak, tximiniak, nabarrak, etb.



Txonta, 30 - 1. eta behea

Tfnoak: 943 12 13 67
Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
Urkizu, 26

Tfnoak: 943 12 74 01

info@ulmar.net www.ulmar.net





Policlínica Gipuzkoako Kontsulta Zentroa
Ibarkurutze kalea, 2 -EIBAR-
Telefona: 943 25 61 00

POLIKLINICA GIPUZKOA

OSASUN IKASGELEN EDIZIO BERRIAREN INAUGURAZIOA EIBARREN

Telefona: 943 00 28 00

www.policlinicagipuzkoa.com



Laura Quintas
KARDIOLOGOA

Kardiologiari buruzko hitzaldi batekin

Laura Quintas kardiologoak hitzaldi irekia emango du, kardiologiari begira bizimodu osasuntsua izan eta bihotzari eragin diezaioketen arrisku faktoreak saihesteko aholkuak azaltzeko.

Quintas doktoreak arrisku-faktore kardiobaskularrak nola saihestu azalduko du. "Bost keinu txiki nahikoa dira bihotza hobeto zaintzen laguntzeko", dio sendagileak, "ariketa egitea (egunean gutxienez ordu erdi ibiltzea), dieta zaintzea (batez ere frutak eta barazkiek osatutako dieta osasuntsua, askotarikoa eta orekatua izatea), ez erretzea, estresa saihestea (gauzak lasai eta modu baikorrean hartzea) eta, amaitzeko, ahal den neurrian alkoholaren kontsumoari muga ipintzea".

Gaixotasun kardiobaskularrek sarritan ez dute sintomarik azaltzen eta baliteke miokardio-infartuarekin lehenengoz agertzea. Horregatik, Laura Quintas doktoreak "bu-

larrean, lepo-eztarrian, masailezurrean, ezker sorbalda eta besoan, sabelaldearen goiko aldean edo bizkarrean mina sentitu bezain laster medikuarengana joatea" aholkatzen du.

Gaitz kardiobaskularrak prebenitzeko, aldagarriak diren arrisku-faktoreak, hala nola kolesterol maila altua, hipertentsioa, mellitus-diabetesa eta tabakismoa saihestu behar dira. "Ariketa fisikorik ez egitea edo sedentarismoa, estresa eta obesitatea gaitz kardiobaskularra izateko aukerak areagotzearekin lotzen badituzte ere, guk aldatu ezin ditzakegun beste arrisku faktore batzuk daude, adina edo familia-aurrekariak, adibidez" azpimarratzen du Quintas doktoreak.

Policlinica Gipuzkoak hamar hitzaldik (sei Donostian eta lau Eibarren) osatutako Osasun Ikasgelen ziklo berria inauguratuko du Eibarren. Edizio berriaren asmoetako bat, osasun arloan gaurkotasuna duten gaietatik abiatuta, horiei buruz azkenaldian sortutako informazioaren berri ematea da eta, bide batez, hitzaldietara joandakoekin solasaldian, izan ditzazkeen zalantzak argitzea.

Edizioa datorren asteko eguaztenean, otsailaren 5ean, Eibarren egingo den hitzaldiarekin inauguratuko dute: 19.30etatik aurrera, Laura Quintas Policlinica Gipuzkoako kardiologoak bihotzari buruzko hitzaldia emango du Portalea kultur etxean.

**BIZIMODU
OSASUNTSUA IZAN
ETA BIHOTZARI
ERAGIN DIEZAIOKETEN
ARRISKU
FAKTOREAK
SAIHESTEKO
AHOLKUAK**

**OSASUN
IKASGELAK**
POLICLINICA GIPUZKOA



DATA Otsailaren 5ean **ORDUA** 19.30 h
TOPALEKUA Eibarko Portalea Udal Kultur Etxea
sartera DOAN



POLICLINICA GIPUZKOA

www.policlinicagipuzkoa.com

Deltecoko bost ordezkari sarituko dituzte Triatloiren Galan

Durangoko Kafe Antzokian bihar eguerdian egingo den Triatloiren Galan azken denboraldiko triatloi eta duatloi zirkuitoetako atleta onenek ondo merezitako sariak jasoko zituzte. Hor izango dira Deltecoko Eibar Triatloiko bost ordezkari: duatloian, Pello Osoro (23 urtetik azpiko onena), Juan Jose Romero (beteranoen 2 mailako onena) eta Roberto Gartzia (beteranoen 1 mailako bigarrena); eta triatloian, Alejandro Altuna (beteranoen 2 mailako onena) eta Andoni Lopez (juniorretan bigarrena). **Bestalde, Anson egin zen Espainiako Kopako** lehen neguko triatloi proban (korrika + BTT + fondoko eskia), Pello Osorok maila handiko bigarren postua lortu zuen, Jon Erguin Espianiako txapeldunaren atzetik.



Pello Osoro (ezkerrean) podiumean izan zen Ansoko triatloian.

berriak

FOBALL ZALETUA

Koskorrek berdinketatik haratago ezin izan zenezuegin, Durangok beste bi puntutan handitu du bigarrenarekiko aldea eta orain lau puntu ateratzen dizkio Koskorri eta sei Txokori. Asteburu honetan hiru lehenak sailkapeneko hiru azkenen aurka jokatu dute: hiru partiduak etzi goizean izango dira.

FOBALLA

Preferente mailako Eibartarrak-ek 3-1 irabazi zion Tolosa B-ri eta azken postuetatik ihes egin du. Erregional 1. mailan, bestalde, Armagiñak atzean geratzen hasi da igoerako bere multzoan (2-0 galdu zuen Beasainen), Kopa torneoan Urki eta Eibartarrak goiko postuetan dauden bitartean: azken jardunaldian Urki 4-1 irabazi zion Ikasberriri eta Eibartarrak-ek 2-0 galdu zuen Alle Puntaren zelaian.

Eibarrek Las Palmas indartsua hartuko du



Mainz, etxera bueltan, Fran Garagarzarekin.

A Coruñaiko Deportiboaren atzetik kanpoko partiduetan puntu gehien irabazi dituen Las Palmas hartuko du Eibar F.T.-k bihar Ipuruan, 20.00etatik aurrera. Lehen itzuliko partiduan eibartarrek bana berdindu zuten Kanariar uhartean, ia amaieraraino irabazten joan ondoren. Armagiñen lerroetan min hartuta zituzten jokalariguztiak erreuperatzen doaz eta David Mainz etorri berriak ere jokatu ahal izango du, bere transferra heldu baita: Garitano entrenatzaileak izango du azken hitza.

Burua altxatu ezinik saskibaloian


Azken asteburuko gure herriko talde bien porrotek gauzak lehen zeuden baino argiago laga dituzte. Horrela, Santo Tomasekin 61-41 galdu eta gero, Ruibalek jaitsiera saihesteko zailtasunak izango ditu, bere aurrekoak baino bi partidu gutxiago irabazi baititu. Katu Kalek, bestalde, Zarautz Sharks-ekin 41-46 galdu ondoren, igoera fasetik kanpo geratu da eta ez du inongo aukerarik mailaz igotzeko.

Somos Eibar-ek ez du amore ematen

Lidergoan sendo jarraitzen du Eibar Eskubaloiko lehen taldeak eta, Urdanetari 24-32 irabazi eta gero, bihar Erromo azken sailkatua jasoko du Ipuruan (kontuz, azken jardunaldian Egia 3. sailkatuari irabazi baitzion). Hamar jardunaldi geratzen direnean liga amaitzeko (hau da, 20 puntu), eibartarrek 9 puntu ateratzen diote hirugarren sailkatuari; beraz, igoera faserako gertakizunak egin hasi behar direlakoan dirudi.

Herriko xakelarien asteburu oparoa

Klub Deportiboko maila goreneko taldeak 0'5-3'5 irabazi zion Erreterian Mundarro-Oreterari, Ricardo Bastida, Julen Garro eta David Perezen garaipenekin eta Alex Aranzabalen berdinketarekin, bigarren mailako taldeak Mutrikuko Txaturangari 3-1 irabazten zion bitartean: Jon Aranak, Xabier Beorlegik eta Jose Antonio Garridok nagusitu ziren euren partidetan. Jose Antonio Garridok, berriz, amore eman behar izan zuen.



ZUBIAURRE ARRIZABALAGAtar JUAN -Pili Ortizen alarguna- (2011-XII-5) & FELISA

-Ramon Agirregomezkortaren alarguna- (2012-I-29)

2. urteurren MEZA:
otsailaren 2an (domeka),
12.00etan, San Andres parrokiari





TXEMA PASCUAL (okina) "Ogiarekin jaten duzunak loditzen du, ez ogiak"

Txema Pascual Artepan okindegiko arduraduna da. Okindegi hori mundu horretako erreferentzia da gaur egun: ez bakarrik Gasteizen duen denda, baizik eta Euskal Herri osoan. Ogia egiteko hainbat moduren jabe da eta beti dago berak ikasitakoa besteei jakinarazteko gogoz. ...eta kitto!-k antolatuta, otsailaren 11n ogi-dastaketa saioa eskainiko du, Juantxo Aranburu eibartarrarekin batera, euskara elkartearen Urkizu 11-ko lokaletan. Izena emateko: 943-206776 eta 943-200918.

- Zer eskainiko duzue otsailaren 11ko dastaketa saio horretan?

Aldi berean dastaketa eta hitzaldia izango den horretan ogi bat zelan egiten den azalduko dugu. Egiteko beharrezkoak diren osagaiak, izan daitezkeen prozedurak, erabili beharreko legami naturalak... Noski, hainbat ogi ere dastatuko ditugu.

- Nondik nora doaz azken berritasunak arlo horretan?

Berritasunak, hitzak esaten duen moduan, beti daude. Eten-gabeko prozesua da ogia egitearena. Beti dago hobekuntza fasean: erabili beharreko prozedurak eta irin motak aldatzen doaz, ogiaren zaporea eta bere egitura hobetzeko bidean.

- Garia eta zekalea dira gehien erabiltzen diren lehengaiak? Badira beste batzuk?

Egia da garia eta zekalea direla gehien erabiltzen direnak, baina badira beste lehengai batzuk ere: espelta, artoa eta oloa, esaterako. Gutxiago erabili arren, ezin dira ahaztu sesamo, lino edo amapola haziak.

- Gero eta ogi mota gehiago daude okindegietan? Beharrezkoa da hainbeste gotea?

Bai, jendeak gero eta aukera gehiago du bere gustoko ogia erosteko. Hala ere, niretzat mota asko egoteak ez du garrantzia handirik. Erreparatu behar diogu egiten den ogia kalitatezkoa izateari; horrek du benetako garrantzia.

- Ogiak loditu egiten du? Zenbateraino? Ogi integrala gehiago saltzen da?

Ogiak gizentzen duela... Hori mito bat besterik ez da. Benetan loditzen duena da ogiarekin jaten duzuna. Orokorrean begirata, beste gauza askotan bezala, neurrian dago sekretua: segun eta zenbat kaloria erretzen dituzun, horren arabera jan behar duzu, ez dago besterik. Egia da, bestalde, ogi integrala ongi saltzen dela. Horren zergatia non dagoen? Nik esango nuke batez ere fibra gehiago daukalako.


- Okinak sekretu asko dituzue? Gorde egiten dituzue?

Sekretuak ez; ez da hainbesterako. Bai, gure ohiturak ditugu, gure trikimailuak... desberdinak egiten gaituztenak. Baina, egia esateko, ogia egitea erraza da. Baina horrek badu beste aurpegi bat ere: ogi on bat egunero egitea... hori askoz ere konplexuagoa da.



Supermendikuteren bilduma berria

Aurreko asteko egunean aurkeztu zuen "Supermendikute 2002-2013" liburuak Jose Antonio Azpilikueta marrazkilaria eta irakasleak Coliseoan, jende mordoia batu zuen ekitaldian. Udak kaleratu duen liburuak 2002az geroztik Diario Vasco egunkarian astero argitara emandako komiki-tira guztiak, 500 inguru biltzen ditu.



Mari Carmen Piriz-en margo erakusketa

Gaurtik hasita eta otsailaren 16ra arte, Mari Carmen Piriz artista eibartarraren margolanak ikusgai egongo dira Untzagako jubilatutxean. Erakusketa ohiko ordutegiaren barruan egongo da zabalik: astegunetan, 19.15etatik 21.15etara eta zapatu eta domeketan 12.00etatik 14.00etara.

LEIRE ITURBE



Jon Altuna eta Iñigo Guruzeta musean txapeldun

Euskal Herriko Mus Federazioak antolatuta, abian da Euskal Herriko Mus Txapelketa. Herrikerri herri dihardute kanporaketak jokatzen eta aurreko asteburuan Eibarko Klub Deportiboan jokatutakoan hamaika bikotek jardun zuten. Partidak amaituta, bikote txapelduna Jon Altuna eta Iñigo Guruzetak osatutakoa izan zen. Bigarren bikote sailkatua, berriz, Iñigo Loidi eta Ander Lizarrak osaturikoa izan zen. Kanporaketa guztiak jokatu eta gero, Euskal Herriko finala martxoaren 8an Heletan jokatuko da.

Euskarazko berba-bikote lehiaketa

Eibarko euskaltegi biek, udalarekin lankidetzan, berba bikoteen lehiaketa antolatu dute. Lehiaketa jendeari gehien gustatzen zaion berba bikotea, izenak eta adjektiboak osatutakoa aukeratu dute. Bikoteak modu askotakoak izan daitezke: begirada zorrotz, irribarre gozo, hanka-gorri, tripa-handi... Proposamenak euskaltegia@eibar.net edota eibar@aeek.org helbidera bidali beharko dira edo, bestela, zuzenean euskaltegiatiko batera joan eta han ipinitako kutxan sartu (azken eguna otsailaren 16a izango da). Lehiakideen proposamen guztiak batzean, gehien gustatzen zaionari



botoa emateko aukera izango du jendeak eta irabazlea boto gehien jasotzen duena izango da. Argibide guztiak www.eibarko-euskara.com webgunean eskuragarri daude.

Sostoa Santa Ageda batzen

Martitzenean, Santa Ageda egunaren bezperan, ohiturari eutsiko diote Sostoa abesbatzakoek eta, urtero lez, 19.00etan kalejiran irtengo dira, herriko kaleetan Santa Ageda koplak eskaintzera. Erdialdetik Urkizu aldera joango dira kantuan eta, kalejira amaitzean, Bekuak elkartean salda eta txorizoa hartuko dute, Auzokoak batzordeak gonbidatuta. Urteurrena dela eta, noizbait Sostoa kantuan jardun duten koralista ohi guztiak animatu nahi dituzte, egun horretan eurekin batera kalejiran irten daitezzen (abesbatzarekin harremanetan ipintzeko 650146415 telefono zenbakira deitu).



Txanogorritxuri buruzko ikuskizuna

Otsailaren 8an, 17.00etatik aurrera Opera Divertimentok "Caperucita Roja" ikuskizuna eskainiko du Coliseoan. Antzerki musikatuak ordu bete inguruko iraupena dauka eta familia osoarentzat egokia da. Sarrerak 5 euro balio du. Ikuskizunean aktoreek eta abeslariak elkarrekin hartuko dute parte eta abestiak gazteleraz kantatuko badiuzte ere, berba egiten duten zatietan euskaraz jardungo dute.



laburrak

GAZTELEKUA

Indianokua gaztelekuan honakoak prestatu dituzte astebururako: gaur publizitatearen inguruko solasaldia egingo da, bihar Play eta Wii kontsolekin jolasteko aukera izango da eta domekan San Blas opilak egingo dituzte. Bestalde, Gaztetxer-en izena emateko azken eguna domeka (otsailak 2) izango da. Informazio gehiagorako gaztelekuko arduradunei galdetu.



KONTZERTUA AKARAN

Gaur gauerdetik aurrera Stai Zitto rock-ska talde sortu berriak kontzertua emango du Akara tabernan. Maialen Arrizabalaga (ahotsa, saxofoia), Danel Ferreño (bateria), Axier Uranga (bajua), Asier Cascan (gitarra), Andoni Conde (gitarra) eta Xabier Martin (tronboia) gazteek osatzen dute Ermua-Mallabian jaio den taldea.



● **tartak**
● **enkarguak**
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

● KOROAK ● ESKELAK ● HILARRIAK ● AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: ZERBITZU IRAUNKORRA:
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk. ☎ 943 201095 FAX: 943 202564

○ Euskararen erabilera plan berria

Administrazioan euskararendako amas-guneak bilatze bidean, Eusko Jauriari-tzak erabilera plan berria onartu du; hor lan hizkuntza gisa bultzatuko dute eus-kara, azken helburua zerbitzua bermatzea dutela. Euskaraz jarduteak "lan karga handiagorik" eragin ez dezan, neurriak hartuko dituzte. Patxi Baztanika sailburuordearen esanetan, hamar langiletik seik badute nolabaiteko maila: langileen %51k egiaztatu dute dagokien maila, eta %10ek dagokiena baino bat baxuagoa. Gainera, demigortasun irizpideekin jarraituko dute: postuen %48,5ek izango dute, orain arte %44,6 zirenean.

euskararen txokoa

○ Euskarazko prentsaren kalitatea

EHuko Hedabideak, Gizartea, Hezkuntza ikerketa taldeak egindako azterketaren arabera, euskarazko prentsak gainditu egin du kalitate azterketa eta Europako erreferentziako kazeten paretsu dago kalitatean. Berria egunkarian, Argia astekarian eta Goiena herri aldizkarian 2001etik 2013ra arte argitaratutako edukiak aztertu dituzte. Erabilitako metodologia "oso zorrotzat" jo dute. Euskarazko prentsak Europakoak baino ekarpen handiagoa egiten dio gizarteari: hori onerako. Ahulguneei begira, akats gramatikalak eta pikaketa akats gehiegi ditu eta gaitan ez du sakontzen.

Ipurterre lehiaketa

Ipurterre euskerazko XX. ipuin lehiaketa abian da. Lehen Hezkuntzako eta DBH-ko ikasleek har dezakete parte. LH-koek nahi duten gaiari buruzko ipuinekin eta DBH-koak "Euskal Herrian ligatzea zaila dela esaten dute" gaiari buruz idatzitako lanekin. Luzeera mailaren arabera da: LH 1-2 mailetan, gehien jota orrialde erdia eta marrazkia; 3-4. mailetan orrialde erdi eta orrialde eta erdi bitartan; eta 5-6. mailetan orrialde bat eta bi bitartean; DBH 1-2 mailetan orri erdi eta orrialde bat bitartean; eta 3-4 mailetan orrialde bat eta bi bitartean. Lanak martxoaren 4rako (13.00erako) ...eta kitto!-n entregatu beharko dira.

Aratosteetarako kartel lehiaketa

Irene Jaiok irabazi du Aratosteetako kartel lehiaketa, "Oiloa inauterietan" izenburuko lanarekin. Leire Kareagak, Asier Lopez de Viñasprek eta Marina Barrenak osatutako epai-mahaiak aho batez erabaki du sari nagusia berari ematea. Horrez gain, umeen artean, 11 eta 14 urte bitartekoen maila-ko irabazlea Afrika Santos Cid (12 urte) izan da, "Gora Eskuak" lanarekin eta

10 urtera artekoen mailan, berriz, Gorka Kareaga Salido (10 urte), "Jostunen Jaiak" kartelarekin. Aurtengo deialdian 88 lan jaso dituzte, 38 helduen mailan eta 50 umeen maila bietan. Sari banaketa martxoaren 1ean, Aratoste Zapatuan izango da, 13.30etan, Untzagako karpan.

Bestalde, Aratosteen inguruko beste bi lehiaketatan parte hartze-ko aukera dago: Aratosteetan dotoreen jarritako taberna lehiaketan parte hartu nahi duenak otsailaren 27ra arte eman dezake izena, Pegoran; eta Aratosteetako argazkiak sarituko duen Eguen Zuri lehiaketarako lanak aurkezteko azken eguna martxoaren 4a izango da (informazioa eta lanak entregatzea Arrate Kultur Elkartearen).



Argazki-collageak Portalean

Otsailaren 16ra arte Patrik Grijalvo Millois bilbotararren argazki-collageak egongo dira ikusgai Portalean, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara. Artista



gaztea izanda ere, ibilbide profesional luzea egin du Grijalvok. Besteak beste, Getxoarteko eta Ibilarteko azken edizioetan bere artelanak erakusten izan da, baita Rekalde Aretoan ere. Atzerrian ere erakusketa ugari egin ditu: Atenasen, Austriako hainbat tokitan, Rotterdamen, Vienan eta Guatemalan, besteak beste.



MAIALEN LOPEZ IGLESIAS

4. urteurrena (2010-I-30)

Nahiz eta denporia pasau, ez zaittugu ahazten.

ZURE LEHENGUSU-LEHENGUSIÑAK, OSABA-IZEBAK ETA AMAMA

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, ALBA, atzo bost urte bete zenuzazelako. Laztan handi bat famelixa guztiaren eta, batez be, MANEXen partez.



Zorionak, IKER (atzo bost urte) eta IRAIA (urtarrillaren 12xan bi) urtiak egin zenuzazelako. Muxu handi bat guraso, aitxitxa-amama eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, gure potxoluak! IZAROk (martitzenian) eta PERUK (atzo) bederatzita urte egin dozuazelako. Segi horren jator. Patxo potolo bat danon partez.



Zorionak, ANE (bixar urtebete egingo dozu) eta AINHIZE (bi urte egin zenuzazelako hillaen 13an). Bi sorgintzueri, etxekuen partez.



Zorionak, ALEX, zure hirugarren urtebetetzian, guapeton!!!



Zorionak, IZAR, gaur 10 urte betetzen dozuazelako. Ondo pasa. 10 muxu handi, famelixaren partez.



Zorionak, ARRATE, 7xa zenbaki magikua da-eta. Ondo-ondo pasa. Laguntxuen eta famelixaren partez.



Zorionak, JUNE, gure sorgintxo, martitzenian 3 urte bete zenuzazelako. Muxu handi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, MARKE, martitzenian bederatzita urte egin zenuzazelako. Patxo handi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, GAIZKA Zubizarreta Agirre gomezkorta, haraiñegun 10 urte egin zenuzazelako. Aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, LANDER, mutil handi! Patxo handi bat etxekuen partez.



Zorionak, JANIRE, haraiñegun 8 urte bete zenuzazelako. Patxo handixa etxekuen partez. Batez be, Oier, Ekain, Mikel eta Mendi.



Zorionak, JULEN, domekan zazpi urte egingo dozuazelako. Ondo pasa, txapeldun! Muxu asko famelixaren partez.



Zorionak, UNAI Lopez, gaur bederatzita urte betetzen dozuazelako. Etxekuen partez.



Zorionak, JOSE ANTONIO eta TIMOTEA, otsailaren 6xan 60 urte egingo dozuazelako alkarrekin. Segi holan urte askuan eta patxo edar bat famelixa guztiaren partez.



zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)
1an: 17.00, 22.30
2an: 16.30, 20.00
3an: 20.30

"La vida de Adèle"
Zuzendaria: Abdel. Kechiche



(2 ARETOAN)
1an: 17.00, 19.45, 22.30
2an: 17.00, 20.00
3an: 20.30

"La vida secreta de Walter..."
Zuzendaria: Ben Stiller



(ANTZOKIAN)
1an: 19.00, 22.30
2an: 20.00
3an: 20.30

"El lobo de Wall Street"
Zuzendaria: M. Scorsese



hildakoak

- Federico Gabilondo Azpiri. 58 urte. 2014-I-24.
- Pedro M^a Garate Urzelai. 73 urte. 2014-I-26.
- Juliana Etxeberria Narbaiza. 90 urte. 2014-I-27.
- Patxi Xabier Gomez Martinez. 55 urte. 2014-I-28.

jaiotakoak

- Brisa G. C. 2014-I-19.
- Alex Rosales Barrero. 2014-I-21.

(ANTZOKIAN)
1an: 17.00
2an: 17.00

"Justin Bieber's Believe"
Zuzendaria: Jon M. Chu



BARIXAKUA 31

GAZTELEKUA

16.30. Publizitatearen inguruko solasaldia. Indianokua gaztelekuan.

TOPAKETA

18.00. "Bakea da bidea" topaketa irekia. Aldatze ikastetxean.

EIBARKO KANTUZALEAK

20.00. Abesbatzaren irteera. Untzagatik hasita.

OPERA PROIEKZIOA

20.30. "Tosca" (Giacomo Puccini). Sarrera: 8 euro. Coliseoan.

KONTZERTUA

00.00. Stai Zitto taldea. Akara tabernan.

ZAPATUA 1

ALDATZE DANOK GARA

11.00. Eskolan batu.
11.15. Bisita gidatua.
11.30. Zirraren ibilbidea.
12.30. Hamaiketako eta DJ-ak. Aldatze ikastetxean.

GAZTELEKUA

17.00. Play/Wii. Indianokua gaztelekuan.

UMEENDAKO ZINEA

17.30. "Turbo" (marrazki bizidunak). El Corte Inglesean (aretoan).

KIROLA FAMILIAN

17.30-19.30. Bi eta bost urte bitarteko haurrek eta gurasoek elkarrekin jolasteko gunea. Ipurua Kiroldegian.

LAGUN TALDEA

17.30. "¿Quien ha sido?" ikuskizuna. Sarrera: Euro bi. Hezkuntza Esparruan.

KONTZERTUA

23.00. Orihen / Multa taldeak. Ez Dok tabernan.

DOMEKA 2

GAZTELEKUA

17.00. San Blas opilak. Indianokua gaztelekuan.

KIROLA FAMILIAN

17.30-19.30. Bi eta bost urte bitarteko haurrek eta gurasoek elkarrekin jolasteko gunea. Ipurua Kiroldegian.

ASTELEHENA 3

IKASTEN

16.00. Sendabelarren foroa. Portalean.

GURASOAK MARTXAN

18.30. "Conviviendo entre culturas" hitzaldi irekia, LH-ko gurasoentzat. San Andres ikastetxean.

MARTITZENA 4

IKASTEN

10.00. "Mujeres escritoras, siglos XVIII, XIX y XX" hitzaldia. Jose Domingo. Armeria Eskolan.

SANTA AGEDA

19.00. Sostoa abesbatzaren kalejira.
19.00. Eibarko Kantuzaleak-en irteera.
19.30. Kaleetan Kantuz-en irteera. Urkizutik.

EGUAZTENA 5

IKASTEN

11.00. Kafe-tertulia: "Caducidad de los productos". Untzagako jubilatuek etxean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Entsegua. San Andres elizako lokaletan.

EGUENA 6

IKASTEN

10.00. "Clonacion y transgenicos" hitzaldia. Juan Canales. Armeria Eskolan.

TAILERRA

10.00. "Beharginen hautaketa prozesuaren dinamika" (lan bila dabilzatenendako talde-tailerra, doan). Portalean (ikastaro gelan).

GURASOAK MARTXAN

18.30. "Como transmitir hábitos saludables" hitzaldi irekia, LH-ko gurasoentzat. Urkizu ikastetxean.

ODOL-ATERATZEA

18.30. Odol-emaileentzat odola ateratzeko saioa. Anbulategian.

BERREIBAR KULTURALA

19.00. "Eibarko historia industrial gerra ostean" hitzaldia. Nerea Alustiza. Portalean.

MENDI PROIEKZIOA

19.30. "Karakorum Negua". Alex Txikon. Jarraian, pintxo-poteoa. Klub Deportiboan.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ikastaroak

✓ Photoshop argazkilarientzat (oinarrizkoa)

Noiz: Martxoaren 10, 12, 17 eta 19an (19.30-21.30).
Izen-ematea: Arrate Kultur Elkarte, astelehenetik eguenera 17.00-19.00, 943-202299 edo arratekultu@gmail.com (30 euro; 25 euro Kultuko bazkideentzat).

✓ Fandango eta arin-arin

Noiz: Martxoaren 4tik maiatzaren 20ra. Martitzeno, 19.00-20.30, Kultun, 1. solairuan. **Izen-ematea:** Arrate Kultur Elkarte, astelehenetik eguenera 17.00-19.00, 943-202299 edo arratekultu@gmail.com (35 euro; 30 euro Kultuko bazkideentzat).

✓ Ur Sorospen ikastaroa

Noiz: Otsailaren 8tik martxoaren 16ra, zapatu eta domeketan, 09.30-16.00 (60 ordu). Ipurua kiroldegiko igerilekuan. **Izen-ematea:** Eibar-Ermuko Gurutze Gorria (autopistako peajea) eta 943-176248.

HOROSKOPOA

ARIES

Zuretzat garrantzitsua da, baina ez da besteentzat horrela izan behar derrigor. Jendeak arazo ezberdinak izaten ditu.

TAURUS

Modu osasuntsuagoan jaten hasi beharko duzu. Kanpotik ondo, baina barrutik zelan zaude? Zaindu ahora zer eramaten duzun.

GEMINI

Merkatari bikaina izango zinateke feniziar sasoian. Edozeinekin tratua egiteko gauza zara, baita deabruarekin berarekin ere.

CANCER

Beharpenak, deskontuak, bonoak etabar aprobetxatu beharko dirua aurrezteko. Edo behar duzuna besterik ez gastatu.

LEO

Eztarriko minak ez dizu bakean lagako. Lo egiteko, txarto; berba, kostata; arnasa hartzeko, arazoak. Jarabe potentea erosi.

VIRGO

Zein da zuretzat asteko egunik onena? Trankil, aste honetan egun guztiak izango dira zoragarriak zuretzat. Ezin kezatu.

LIBRA

Saia zaitzez egunero irribarre batekin altxatu eta gertatuko zaizkizunak ondoen eramaten. Badakizu, hobe barre batekin.

SCORPIUS

Hotza ondo jasaten ez baduzu, ahalik eta gehien babestu. Negua gogorra egingo zaizu, barreneko hotza sentitzeraino.

SAGITTARIUS

Astelehen goiza bereziki gogorra egin zaizu. Hortik aurrera, gauzak hobetzen joango dira, astea bikain amaitzeko.

CAPRICORNIUS


Ez izan presarik: helduko da umea eta jasoko duzu merezi duzun hori. Bitartean, egon trankil, pazientziarik galdu gabe.

AQUARIUS

Ezin duzu espero dena zuretzat izatea, besteek ere zuk adina lan egiten badute. Zertarako behar duzu guzti hori?

PISCIS

Gauza bat da eztabaidatzea eta beste bat zuk egiten duzuna. Besteek ezin dizute ezer esan, berehala asaldatzen zarelako.



erakusketak

✓ Urtarrilaren 31ra arte

ESTHER GALARZAREN akuarela erakusketa. *El Ambigu tabernan.*

FERNANDO RETOLAZAREN "Patagonia" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

JESUS BOTAROREN argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*

✓ Otsailaren 10era arte

MYCHEL TYTGAT-EN "20 obras 40 años" margo, akuarela eta marrazki erakusketa. *Topalekuan.*

✓ Otsailaren 16ra arte

PATRIK GRIJALVO MILLOIS-EN argazki-collageak. *Portalean.*

MARI CARMEN PIRIZ-EN pintura erakusketa. *Untzaga jubilatua etxean.*

lehiaketak

✓ Hitz bikoteen Lehiaketa

Egin beharrekoa: Izena + adjektiboa erabilita, hitz bikotea osatzea (euskaraz). **Lanak aurkeztea:** Otsailaren 16ra arte, euskaltegia@eibar.net / eibar@aek.org helbidera edo zuzenean euskaltegietakoko batean lagata. **Informazio gehiago:** www.eibarko-euskara.com

✓ Emakume Langilearen Eguneko Lan Artistikoen II. Lehiaketa

Gaia: Martxoak 8. **Norentzat:** 16 urtetik gorakoentzat, edozein teknika erabilita sortutako artelanekin. **Lanak aurkeztea:** Arrate Kultur Elkarte (astelehenetik eguenera, 17.00-19.00), otsailaren 28a baino lehen. **Saria:** 200 euro. **Informazioa:** Arrate Kultur Elkartea, 943-202299 (mezua laga) edo arratekultu@gmail.com

farmaziak

✓ barixakua 31

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

✓ zapatua 1

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

✓ domeka 2

EGUNEZ **Las Heras** (Calbeton, 19)

✓ astelehena 3

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

✓ martitzena 4

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

✓ eguaztena 5

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

✓ eguena 6

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

✓ barixakua 7

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)

2014 urte osorako

GAUEZ

Azkue (T. Etxebarria, 4)

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.50etara ordu, 15.00, 15.50etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.50etatik 20.50etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.15etatik 22.15etara ordu. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.15etatik 22.15etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

8			6	3			1
6				9			8
		5	1				9
	3					1	
9		1			5		4
	8					9	
2			9		8		
1			6				5
4			5	3			6

SUDOKUA

2	7	4	5	3	1	6	8	9
3	1	8	9	2	6	7	5	4
6	5	9	7	8	4	3	2	1
5	6	2	8	9	7	4	1	3
4	3	1	2	6	5	9	7	8
8	9	7	4	1	3	2	6	5
1	2	5	6	4	9	8	3	7
7	4	6	3	5	8	1	9	2
9	8	3	1	7	2	3	4	6

AURREKOEN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, 2 komun, egongela, sukalde eta trasteroa. Ilogailua. Guztiz berriztuta eta argitsua. 130 m². Tel. 626-203838.

– Pisua salgai Soroluzen. 2 logela, egongela, sukalea eta komun. 60 m². Berogailu urdina, berriztuta. Teilatua berria. Dena kanpora begira. Bizitzera sartzeko moduan. 69.000 euro. Deitu 18.30etatik aurrera. Tel. 617-207672.

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke errentan Eibarren. Tel. 650-152866 eta 698-604531.

– Pisua hartuko nuke errentan Eibarren. 400 euro ordainduko nituzke gehienez. Tel. 633-843512.

– Esteponan (Malaga) pisua alokagai marxoan, apirillean eta maiatzean. 3 logela, 2 bainugela eta egongela. Portu, hondartza eta herritik gertu. Itsasora begira. Tel. 943-201294 eta 657-799311.

– Pisua alokagai Jardinetan kalean. 3 logela eta egongela. Tel. 690-018786.

– 3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 632-337083.

– Pisu bi alokagai Arrate-Biden: 3 gelakoa bata eta 2koa bestea. Tel. 645-728317 eta 943-201294.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Citroen Xsara salgai. Diesel. 90 cv. Garajejan gordeta beti. Egoera onean. Prezio interesgarria. Tel. 656-733131.

– Mercedes Benz E-320 CDI autoa salgai. 224 cv. 117.500 km. 2007. urtekoa. Egoera onean. Tel. 630-975501.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Lokala salgai Untzagan. Merke. Tel. 685-916047.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 663-911069.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Asteburuak barne. Tel. 631-466742.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 600-332954 eta 943-700229.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 606-354982.

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 626-197217.

– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-844142.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-700902.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-866929.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Orduka. Tel. 699-232823.

– Gizonezkoa eskaintzen da tabernak edo soziedadekak garbitzeko. Tel. 603-550465.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-597073.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-418130.

– Neska eskaintzen da etxeak eta pegorak garbitzeko. Erreferentziak. Tel. 608-820954.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-419814 eta 631-282203.

– Neska eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 652-532589.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 600-332954.

– Mutila eskaintzen da iturgintza-lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 685-611778.

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 638-338816.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

umeak zaintzeko. Tel. 654-938957.

– Emakume euskalduna eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 943-788198.

– Emakumea eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko. Tel. 628-529252.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. 20 urteko esperientzia. Orduka zein egun osoz. Tel. 680-463892.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pegorak garbitzeko, sukaldean jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 680-526228.

– Gizonezkoa eskaintzen da igeltsero, pintore eta lorazain jarduteko. Tel. 628-818558.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 627-784812.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa eta orduka. Tel. 680-121252.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 697-308051.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Arratsaldez eta gauzez. Tel. 628-223441.

– Gizonezkoa eskaintzen da edozein gauzatarako. Esperientzia garbiketarako eta atezaintzan. Orgaita jasotzailerako karneta. Tel. 616-370323.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-549224.

– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta ortuan lan egiteko. Tel. 632-987144.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxean zein ospitalean. Tel. 657-239953.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Externa. Tel. 663-860460.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbitzeko. Esperientzia. Tel. 675-358119.

– Mutila eskaintzen da tabernan lan egiteko eta pegorak eta garajeak garbitzeko. Esperientzia taberna eta jate-txetan. Tel. 692-332871.

– Behargina eskaintzen da pegorak edo bulegoak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Arratsaldez. Tel. 620-757528. Arrate.

– Mutila eskaintzen da pintore jarduteko. Tel. 617-694603. Manuel.

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta plantxatzeko. Tel. 632-337083.

– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 608-928766.

– Mutila eskaintzen da banatzaile jarduteko edo biltegian lan egiteko. Tel. 632-210608.

– Mutila eskaintzen da soldatzaile edo sukaldari laguntzaile moduan jarduteko. Tel. 609-601500. Carlos.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Klase partikularrak ematen dira. DBH, Batxilergoa, Heziketa Zikloak eta Unibertsiterako. Tel. 669-622642. Mireia.

– Neska euskalduna eskaintzen da klaseak emateko. DBH eta Batxilergoko ikasgai zientifiko-teknikoak ematen esperientzia. Bakarka edo talde txikiak. Tel. 615-704540.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Bigarren eskuko soinu txikia erosi nahi dut. Tel. 689-207241. Carmen.

– Lehen jaunartzerako marinel trajea salgai. Beige kolorekoa. 14 tailakoa. Ia berria. Prezioa adosteko. Tel. 630-686469.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Betaurreko progresiboak galdu nituen hilaren 23an Eibarren. Tel. 629-316382.

6.4. Bestelakoak

– Bigarren eskuko josteko makina elektrikoa erosiko nuke. Tel. 675-707518. Esther.

– Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 943-572057.

– Asteburuetan belaontzian nabigatzeko taldea osatzen ari gara. Tel. 605-751127.


1924ko urtarrilaren 30ean bildu zen Junta Orokorra, Candido Arrizabalagaren zuzendaritzapean. Hor erabaki zen atletismoa, alpinismoa eta txirrindularitza bultzatuko zuen elkarte sortzea. Bere izena Club Deportivo de Eibar izango zela onartu zen. Maria Angela kaleko "Café Eulalio" hartu zuten egoitza moduan. Batzar horretan erabaki zen ere pezeta bateko hileroko kuota ezartzea. Hamar urte besterik ez dira geratzen klubak mendea betetzeko.



*ESKERRIK ASKO
eibartarroi zuen
fideltasunarengatik*

*GAUR EGUNGO
BATZORDEAK
Argazkilaritza
Artxiboa
Atletismoa
Eskia
Espeleologia
Kezka Dantza Taldea
Kultura
Mendia
Padela
Pilota
Squash-a
Txirrindularitza
Urpekoak
Xakea*

Eibarko Klub DEPORTIBOA



1924-1-30
90 urte

